Galdakaoko Udala

www.galdakao.eus Kurtzeko plaza 1. 48960 Galdakao. Tf.: 94 401 05 00. Faxa: 94 456 78 43. IFK / CIF P4804400B

**Iñigo Hernando Arriandiaga (1, guztira 1)**
Alkate / Alcalde-Presidente
Sinaduraren data: 23/05/2022
HASH: 5f351e8bb814f7f9c46adac41f4ab895

**DEKRETUA: Bidaiarien Hiriko Autobus-garraio Zerbitzuaren Erregelamendu-proiektuaren aurreko kontsulta publikoa.**

**Esp. 2649/2022**

Udalak interesa du Galdakaoko Udaleko Bidaiarien Hiriko Autobus-garraio Zerbitzuaren Erregelamendua onartzeko. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikuluaren arabera, lege- edo erregelamendu-proiektua edo -aurreproiektua egin aurretik, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren web-atariaren bidez, eta, bertan, etorkizuneko arauak eragin diezaiekeen subjektuen eta erakunde adierazgarrienen iritzia jasoko da, honako hauei buruz:

a) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.

b) Plana onartzeko beharra eta egokitasuna.

c) Arauaren helburuak.

d) Beste aukera arautzaile eta ez-arautzaile batzuk.

Erregelamendu hau egiteko, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2.g) artikuluan xedatutakora jotzen dugu. Artikulu horrek hiri-garraio publikoaren arloko eskumenak esleitzen dizkie udalei.

Lege horrek berak, 86.2 artikuluan, adierazten du pertsonen garraio publikoko zerbitzuak udalerriei legez erreserbatzen dizkiela.

Era berean, Euskadiko Toki Erakundeei

**DECRETO: Consulta pública previa al proyecto de Reglamento del Servicio de Transporte Urbano de Viajeros en Autobús.**

**Exp. 2649/2022**

Existe interés municipal en regular el Servicio de Transporte Urbano de Viajeros en Autobús del Ayuntamiento de Galdakao. De acuerdo al artículo 133.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, con carácter previo a la elaboración del proyecto o anteproyecto de ley o de reglamento, se sustanciará una consulta pública, a través del portal web de la Administración competente en la que se recabará la opinión de los sujetos y de las organizaciones más representativas potencialmente afectados por la futura norma acerca de:

a) Los problemas que se pretenden solucionar con la iniciativa.

b) La necesidad y oportunidad de su aprobación.

c) Los objetivos de la norma.

d) Las posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias.

Para la elaboración de este Reglamento, acudimos a lo dispuesto en los artículos 25.2. g) de la Ley 7/1985, de 2 abril, reguladora de las Bases del Régimen Local. Este artículo atribuye a los municipios el ejercicio de competencias en materia de transporte público urbano.

Esta misma Ley, en su artículo 86.2, declara la reserva legal en favor de los municipios de los servicios de transporte público de personas.

A su vez el artículo 17.1.18) de la Ley 2/2016, de 7

Baliozkotze Kod.: 9CZ6E5CNSMPM52FQJKJ7JZE3L | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 1. orrialdea, guztira 6

buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1.18 artikuluak ezartzen du udalerriek honako eremu material hauetan baliatu ahal izango dituztela eskumen propioak:

Pertsonen garraio publikoko hiri-zerbitzuak antolatzea, planifikatzea, programatzea, kudeatzea eta sustatzea, garraioa edozein dela ere, udalerri barruan egiten bada oso-osorik.

Toki-araubidearen Oinarriei buruzko apirilaren 2ko 7/85 Legearen 21.1 s) artikuluaren arabera,

XEDATZEN DUT:

Bakarra.- Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluaren arabera, kontsulta publikoa egitea, Galdakaoko Udalaren Bidaiarien Hiriko Autobus-garraio Zerbitzuaren Erregelamendua onartu aurretik. Ordenantza hori 15 egun balioduneko epean egingo da, udal webgunean argitaratu eta biharamunetik hasita:

https://www.galdakao.eus/arau-proiektuenkontsulta-publikoa/

Galdakaon, sinadura elektronikoaren datan

ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA

de abril, de Instituciones Locales de Euskadi establece que los municipios podrán ejercer competencias propias en los siguientes ámbitos materiales:

Ordenación, planificación, programación, gestión, disciplina y promoción de los servicios urbanos de transporte público de personas que, por cualquier modo de transporte, se lleven a cabo íntegramente dentro de sus respectivos términos municipales.

De acuerdo al artículo 21.1 s) de la Ley 7/85, de 2 de abril, de Bases del Régimen Local.

DISPONGO:

Único.- En virtud del artículo 133 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, someter a consulta pública previa la aprobación del Reglamento del Servicio de Transporte Urbano de Viajeros en Autobús del Ayuntamiento de Galdakao, por un plazo de 15 días hábiles desde el siguiente al de su publicación en la web municipal:

http://www.galdakao.eus/participacionproyectos-normativos

En Galdakao, a fecha de firma electrónica

DOCUMENTO FIRMADO ELECTRONICAMENTE

Baliozkotze Kod.: 9CZ6E5CNSMPM52FQJKJ7JZE3L | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 2. orrialdea, guztira 6

**GALDAKAOKO BIDAIARIEN HIRIKO AUTOBUS-GARRAIO ZERBITZUAREN ERREGELAMENDUA EGIN AURREKO KONTSULTA PUBLIKOA.**

39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenaren 133.1 artikuluak ezartzen duenez, arauak idatzi baino lehen, herritarrek parte hartzeko izapidea egin behar da, hau da, Administrazio jardulearen web-atariaren bidez bideratu beharreko kontsulta publikoa egin behar da, etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektu eta erakunde esanguratsuenen iritzia jasotzeko. Honako hauei buruzkoa izan behar du:

- Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.
- Onartzeko beharra eta egokitasuna.
- Arauaren helburuak.
- Izan daitezkeen bestelako aukera erregulatzaileak eta ez-erregulatzaileak.

Ondorioz, kontsulta publiko hau honako alderdi hauen arabera egitea erabaki da:

A) ERREGELAMENDUAREKIN KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK
Hiriko autobus-garraio zerbitzu publikoaren funtzionamendua behar bezala arautzea, Hiri Mugikortasun Iraunkorreko Planarekin bat etorriz, garraio publikoaren erabilera sustatzea ahalbidetzen baitu. Hiriko autobus-garraioko zerbitzuak herritarren erreklamazio gehien izaten ditu, beraien ekarpenekin lagun dezaketelarik.

B) ONARTZEKO BEHARRA ETA AUKERA
Onartu beharra dago zerbitzu hori arautuko duen Erregelamendurik ez dagoelako, eta hiriko autobus-garraioaren zerbitzua zeharka kudeatzeko kontratazio-espedientea berehala izapidetu behar delako.

Beraz, interes publikoko arrazoiek justifikatzen dute testua idaztea, zerbitzuaren inguruabarrekin bat datorren arau-testu bihurtuko dena.

Erregelamendu hau egiteko araudia berresteari dagokionez, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2.g) artikuluan xedatutakora jotzen dugu. Artikulu horrek hiri-garraio publikoaren arloko eskumenak esleitzen dizkie udalei.

Lege horrek berak, 86.2 artikuluan, adierazten du pertsonen garraio publikoko zerbitzuak udalerriei legez erreserbatzen dizkiela.

Baliozkotze Kod.: 9CZ6E5CNSMPM52FQJKJ7JZE3L | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 3. orrialdea, guztira 6

Galdakaoko Udala
www.galdakao.eus Kurtzeko plaza 1. 48960 Galdakao. Tf.: 94 401 05 00. Faxa: 94 456 78 43. IFK / CIF P4804400B

Era berean, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.1.18 artikuluak ezartzen du udalerriek honako eremu material hauetan baliatu ahal izango dituztela eskumen propioak:

Pertsonen garraio publikoko hiri-zerbitzuak antolatzea, planifikatzea, programatzea, kudeatzea eta sustatzea, garraioa edozein dela ere, udalerri barruan egiten bada oso-osorik.

C) ARAUAREKIN LORTU NAHI DIREN HELBURUAK
Helburu bikoitza: zerbitzuaren funtzionamendua arautzea eta hiriko autobus-garraioaren erabilera sustatzea.

D) BALIZKO ORDEZKO IRTENBIDE ERREGULATZAILEAK ETA EZ-ERREGULATZAILEAK
Toki-erakundeek udal-erregelamenduak egiteko ahalaren bidez garatu behar dute estatuko eta autonomia-erkidegoko legeria, eta, horretarako, Ordenantzak eta Erregelamenduak egin behar dituzte.

Erregelamendu bat izapidetzea beste aukerarik ez dagoela uste da. Etorkizuneko Erregelamenduak uki ditzakeen eta komenigarritzat jotzen duten herritar, erakunde eta elkarte adierazgarrienek beren iritziak bidal ditzakete planteatutako alderdiei buruz, hamabost egun baliodun eko epean, iragarki hau webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, beren iradokizunak mezu elektroniko honetara bidaliz: mfuika@galdakao.net, HIRIKO AUTOBUS-GARRAIO ZERBITZUAREN ERREGELAMENDUA adieraziz.

**Sinadura elektronikoa**

Baliozkotze Kod.: 9CZ6E5CNSMPM52FQJKJ7JZE3L | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 4. orrialdea, guztira 6

Galdakaoko Udala

www.galdakao.eus Kurtzeko plaza 1. 48960 Galdakao. Tf.: 94 401 05 00. Faxa: 94 456 78 43. IFK / CIF P4804400B

**CONSULTA PÚBLICA PREVIA A LA ELABORACIÓN DEL REGLAMENTO DEL SERVICIO DE TRANSPORTE URBANO DE VIAJEROS EN AUTOBÚS DE GALDAKAO.**

El artículo 133.1 de la Ley 39/2015, de 1 de Octubre, del procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, establece que, con carácter previo a la redacción de normas, debe realizarse el trámite de participación de los ciudadanos, consistente en una consulta pública a sustanciarse a través del portal web de la Administración actuante, a fin de recabar la opinión de los sujetos y organizaciones más representativas que potencialmente se puedan ver afectadas por la futura norma, que debe versar sobre:

- Los problemas que se pretenden solucionar con la iniciativa.
- La necesidad y oportunidad de su aprobación.
- Los objetivos de la norma.
- Las posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias.

En consecuencia, se ha acordado realizar la presente consulta pública de conformidad con los siguientes aspectos que se someten a consideración:

A) PROBLEMAS QUE SE PRETENDE SOLUCIONAR CON EL REGLAMENTO

Una adecuada regulación del funcionamiento del servicio público de transporte urbano en autobús, acorde con el Plan de Movilidad Urbana Sostenible que permite el fomento del uso del transporte público. El servicio de transporte urbano en autobús es uno de los que suele presentar más reclamaciones por parte de los ciudadanos que pueden contribuir con sus aportaciones.

B) NECESIDAD Y OPORTUNIDAD DE SU APROBACION

La necesidad de su aprobación viene motivada por la ausencia de un Reglamento que regule el citado servicio y la oportunidad derivada de la inminente tramitación del expediente de contratación para la gestión indirecta del servicio de transporte urbano en autobús.

Concurren pues razones de interés público que justifican su redacción, a traducirse en un texto normativo acorde con las circunstancias del servicio.

En lo que se refiere al refrendo normativo para la elaboración de este Reglamento, acudimos a lo dispuesto en los artículos 25.2. g) de la Ley 7/1985, de 2 abril, reguladora

Baliozkotze Kod.: 9CZ6E5CNSMPM52FQJKJ7JZE3L | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 5. orrialdea, guztira 6

de las Bases del Régimen Local. Este artículo atribuye a los municipios el ejercicio de competencias en materia de transporte público urbano.

Esta misma Ley, en su artículo 86.2, declara la reserva legal en favor de los municipios de los servicios de transporte público de personas.

A su vez el artículo 17.1.18) de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi establece que los municipios podrán ejercer competencias propias en los siguientes ámbitos materiales:

Ordenación, planificación, programación, gestión, disciplina y promoción de los servicios urbanos de transporte público de personas que, por cualquier modo de transporte, se lleven a cabo íntegramente dentro de sus respectivos términos municipales.

C) OBJETIVOS QUE SE PERSIGUEN CON LA NORMA

Un doble objetivo: el regulatorio del funcionamiento del servicio y el de fomento del uso del transporte urbano en autobús.

D) POSIBLES SOLUCIONES ALTERNATIVAS REGULATORIAS Y NO REGULATORIAS

El desarrollo de la legislación estatal y autonómica por parte de las Entidades Locales, ha de llevarse a cabo necesariamente a través de la potestad reglamentaria municipal, que conlleva la elaboración de Ordenanzas y Reglamentos.

Se considera que no existe otra alternativa que la tramitación de un Reglamento. Los ciudadanos, organizaciones y asociaciones más representativas que puedan resultar afectadas por el futuro Reglamento y que así lo estimen conveniente, pueden remitir sus opiniones sobre los aspectos planteados, por plazo de quince días hábiles a contar desde el siguiente al de publicación de este anuncio en la web, enviando sus sugerencias al email mfuika@galdakao.net indicando REGLAMENTO DE SERVICIO DE TRANSPORTE URBANO EN AUTOBÚS.

**Firmado Electrónicamente**

Baliozkotze Kod.: 9CZ6E5CNSMPM52FQJKJ7JZE3L | Egiaztapena: https://galdakao.egoitzaelektronikoa.eus/
esPublico Gestiona plataformatik elektronikoki sinatutako dokumentua | 6. orrialdea, guztira 6